



‘Beldurra eta haur ipuinak’ ikastaroa antolatu du Hondarribiako Udalak

Izen-ematea irekita dago hilaren 27ra arte udal liburutegian eta posta elektronik bitartez.

Hondarribia. Hondarribiko Udalak Beldurra eta haur ipuinak izeneko ikastaroa antolatu du datorren maiatzaren 29tik 31ra.

Ikastaro honen helburua, guraso zein hezitzaileak ipuinek haurren beldurrak ulertu eta gainditzeko duten eraginaz kontzientziaztea da, egungo ipuinetan eta ipuin klasikoetan beldurraren kontzeptua lantzeko orduan ematen diren desberdintasunak aipatzeaz gainera. Hauekin batera, ipuinek dauzkaten ahalmenak, beldurrezko pertsonaia eta egoeren ezaugarriak eta egungo haurrek dauzkaten beldurrak eta hauek ipuinek nola jorra-tzen dituzten aztertuko da.

Juan Carlos Alonso psikologoak emango ditu ikasgaiak hilaren 29tik 31ra, Zuloaga Etxean, arratsaldeko 18.00tatik 19.30etara.

Beldurra eta haur ipuinak ikastaro hau 30 partaidetara mugatuta dago eta izen-ematea irekita dago hilaren 27ra arte, Udal Liburutegira bertara jota edota liburutegia@hondarribia.org posta elektronik helbidera idatzita.
>x.s.